

Elitezko hezkuntza



Andoni Mujika
IRAKASLEA
@mujikaandoni

Hezkuntzaren alarmak jo du berriz ere. Oraingoan, bi albistek piztu didate argi gorria. Kontua da batetik, ikastetxe publikoetan, murrizketak eta lan baldintzak direla-eta, greba deitu dela; eta bestetik, hezkuntza-ikuskaritzak izendatu behar izan dituela ikastetxe publikoko zuzendarien %40a, inor ez zegoelako ardura hori hartzeko prest. Eta eskerrak zifra leundu egin dela. Itxura denez, azken 7-8 urtetan, %70etik %40era jaitsi da portzentaje hori. Badirudi, orain urte batzuk, pizgarri ekonomikoak eta formazioa ematen hasi zitzaizkiela zuzendariari, eta horrek txikitu egin duela eskandaluzko numero hori. Diruek eta abarrek ez dute zenbaki beltz hori gehiago jaisten ordea. Gai honetan Euskadiko Eskola Kontseiluko ordezkariari ere irakurri dizkiot adierazpen batzuk, esanez, zuzendaritza sendoek emaitzak hobetzen dituztela.

Baina tira, murrizketa arazoa al da gure haserrearen arrazoi nagusia? Izan ere, haserre horren benetako jatorria ezagutzea inportantea da irakasleon eta, batez ere, haur eta gazteen onerako. Lan baldintzen inguruan jakin dezagun EAEn daudela Espainiako Estatuko soldatarik altuenak hezkuntza publikoko irakasleentzako. Datu batzuk: lehen hezkuntzako irakasle batek 2.366 € gordin irabazten ditu hileko eta 1.300 ordutik behera lan egiten du urtean (2016ko datuak dira). Bigarren hezkuntzakoek

2.703 € gordin hilean, eta urtean, 1.000 bat lan ordu. Datu gehiagorekin hobeto osa daiteke argazki hau, bai, baina erronka beste bat da.

Aurrekoek gain, sintoma gehiago ere aspaldi antzematen da hezkuntzaren osasun ahularen erakusgarri. Esaterako, eskola porrota edota ikasleen desmotibazio sakona. Bi adierazle hauek kezka handiz bizi dira familietan. Beste desmotibazio esanguratsu bat ere gehitu behar da: irakasleek sufritzen dutena, eta bere ondorioak, eurengan eta hezkuntzaren kalitatean.

Herri bezala, lehen mailako erronka baten aurrean gaude. Interpelazio serio bat daukagu hezkuntza eragileok guri deika, ez dezagun ihes egin. Hitz-jolas batekin esanda, “elitezko hezkuntza guztiontzat” jarriko genuke helmugan.

Amaitzeko, sarri egiten dugun ariketa bat aitzakia bezala hartuta, hau da, hezkuntza arloan oso aurreratuta dabilen herrialde bati begiratzeko diogunean, ez diogu bere pedagogiari bakarrik begiratu behar. Begiratu beharko genuke bertako ikastetxeen antolakuntza ereduak; ikastetxe-proiektua; berrikuntzarako ausardia; hezkuntzak gizarte horrentzat daukan inportantzia; irakasle izateko bokazioa; irakasle-gaiei eskatzen zaiena; lan-baldintzak; ondo egindako inbertsio kopuruak... Gaia konplexua delako heldu behar diogu behingo, aurreiritzi barik, eta zorrotz. ■

Baztertuak



Itxaro Borda
IDAZLEA

Frantziako Legebiltzarrerako bozek erakutsi dute jendeengan errotua den politikaren erabakimen guneetatik baztertuak izateko sentimendua zein neurritaraino zabaldua den: gazteak eta klase herrikoienak dira arrantzara joaten hauteskunde egunetan, abstentzioak hautesleentzako erdia ukitzen duelarik, hauteskundeentzako ondorioen balioa zalantzan jarriz. Hiritartasunarekiko duda handiak badira gainera, eskubideak ukan arren, deretxoak erabiltzen ez dituzten uestezko bigarren mailako bizidunen kategoria hazten doalarik.

Emmanuel Macronen aldeko uhinak guztia ito du, egi: hauteskunde baino Napoleon III.

aren denboran bezala plebiszitu bat izan da. Baina beste fenomeno batek ere eragin duke: lehendakariaren ingurukoek errepikatu dute legeak, parlamentuaren beharrik gabe, ordenantza bidez pasaraziko zituztela, Legebiltzarraren funtzioa ukatuz. Baldintza horietan zertatik igandea galdu baliorik ez duen botoaren emateko?

Frantses bizitza politikoa berritzearen estakuruz Macron eta bere milizia neoliberalak *House of Cards* telesailako Francis Underwood miresgarriak, bai eta Trump txiolariak, ireki ildotik urratzeko xedea dute, funtsean gutxiesten duten Legebiltzarraren gaintik iraganez. ■